

Zer da Gizonduz?

Gizonak sexuen arteko berdintasunaren alde kontzientziatzeko eta beren parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindaria da. 2007ko bukaera aldera abiatu zen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen lidergoan.

Hauek dira bere helburuak: emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen indarkeriaren aurkako sentsibilizazioa, prestakuntza eta konpromisoa duten gizonen kopurua handitzea eta gizonak etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna handitzea.

Hori guztia, gizonen eta mutikoen artean zaintzaren etika eta jarduna orokortzeko, norberaren eta besteen garapen eta ongizaterako bide gisa, bai eta ezberdintasun eta indarkeria matxistak zein pertsonentzako eta inguruarentzako kaltegarriak diren eta maskulinitatearen eredu nagusiari lotuta dauden arrisku-jokabideak prebenitzeko bide gisa ere.

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren berdintasun politiken barruan kokatuta eta feminista den eta dibertsitatea kontuan hartzen duen ikuspegiarekin, gizonekin modu espezifikoan egiten den lana emakumeen ahalduzkoa sustatzeko lanaren ezinbesteko osagarritzat jotzen da. Gizonekin egiten den lanaren helburu nagusia da botere eta pribilegio maskulinoak zalantzan jartzea; hori baita funtsezko faktorea euren hazkunde pertsonalerako eta gizarte bidezkoagoa, berdinzaleagoa, iraunkorragoa, askeagoa, askotarikoagoa eta bakezaleagoa erdiesteko.

Zer eskaintzen du Gizonduzek?

- **Sentsibilizazio eta Prestakuntza Programa:** gizonak, berdintasuna eta maskulinitateekin loturiko hainbat eta hainbat doako ikastaro eskaintzen da, norbanakoei, taldeei eta erakunde publikoei zein pribatuei zuzenduak.

- **“Gazteak Berdintasunean 2.0”:** proiektu hau bideo joko batean eta unitate didaktiko batzuetan oinarritzen da eta bere xedea da gazteen artean jarrera eta indarkeria matxistak prebenitzea. Banaka erabili daiteke, bai eta tresna pedagogiko gisa ere ikastetxeetan zein hezkuntza testuinguru ez-formaletan.

- **Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako euskal gizonen eskutitza:** gizonak sinatzeko online agiria da, beren berdintasunaren aldeko konpromiso pertsonala eta kolektiboa sustatzeko.

- **“Gizonak esan eta egin”:** proiektu hau online aplikazio batean oinarritzen da eta bere helburua da gizonak beren egunerokotasunean ekintza jakin batzuk egiteko konpromisoa har dezaten berdintasunaren alde, hala nola erantzunkidetasunaren esparruan, zaintzan, indarkeria matxista desagerrarazteko orduan, berdintasun-ideiak hedatzean edo mezu eta jarrera sexistak salatze orduan.

- **Webgunea eta sare sozialak:** herritarren eskura informazio eta material mardoa jartzen da gizonak, berdintasuna eta maskulinitateen gaiaren inguruan eta espazio birtualak eskaintzen dira sentsibilizatorako eta informazioa eta ideiak komunikatzeko eta zabaltzeko.

- **Aholkularitza:** kontsultak erantzuten dira, aurrez aurre, posta elektronikoz nahiz telefonoz, bai Gizonduz ekimenari buruz, bai gizonak, berdintasuna eta maskulinitateekin lotutako beste gai batzuei buruz.

